

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Langara Ganboako edateko ur hornikuntza zerbitzua arautzen duen ordenantza aldatzeko espedientearen behin betiko onarpena

Ez denez alegaziorik aurkeztu espediente horren aurka, argitaratu egiten da, indarrean jar dadin.

Langara Ganboan edateko ur hornikuntza zerbitzua arautzen duen ordenantza

- I. titulua. Xedapen orokorrak.
 - 1. artikulua. Lege oinarria eta xedea
 - 2. artikulua. Eskumenak
 - 3. artikulua. Kontratuak edo harpidetza polizak
- II. titulua. Edateko uraren hornikuntza
 - 4. artikulua. Harpidedunak
 - 5. artikulua. Aurretiko baimenak eta lizentziak
 - 6. artikulua. Uraren erabilerak
- III. titulua. Sarerako konexioak
 - 7. artikulua. Konexioa
 - 8. artikulua. Baimen prozedura
 - 9. artikulua. Instalazioen titulartasuna
 - 10. artikulua. Zerbitzuaren ezaugarriak
 - 11. artikulua. Barruko instalazioak
 - 12. artikulua. Aldaketak hornikuntzan
 - 13. artikulua. Baimen transferiezinak
 - 14. artikulua. Beste erabilera batzuk
 - 15. artikulua. Harguneen ezaugarriak
- IV. titulua. Neurgailuak
 - 16. artikulua. Kontagailu mota
 - 17. artikulua. Kontagailuen instalazioa
 - 18. artikulua. Kontagailuen mantentze lana
 - 19. artikulua. Harguneen aldaketa
- V. titulua. Harpidedunen eskubideak eta betebeharrak
 - 20. artikulua. Harpidedunen eskubideak

- 21. artikulua. Harpidedunen betebeharrak
- VI. titulua. Hornikuntza etetea, iraungitzea eta murriztea
- 22. artikulua. Eteteko kausak
- 23. artikulua. Eteteko prozedura
- 24. artikulua. Hornikuntza kontratua iraungitzea
- 25. artikulua. Hornikuntza eteteko eta iraungitzeko eskumena
- 26. artikulua. Aldi baterako etetea
- 27. artikulua. Murrizketak hornikuntzan
- VII. titulua. Tarifak
- 28. artikulua. Tarifen zenbatekoa
- 29. artikulua. Irakurketak
- 30. artikulua. Ordainagiriak
- 31. artikulua. Fakturak ordaintzeko modua
- 32. artikulua. Fakturazioan dauden hutsen zuzenketa
- VIII. titulua. Iruzurrak hornikuntzan
- 33. artikulua. Ikuskatzea
- 34. artikulua. Jarduketa irregulartasun kasuan
- 35. artikulua. Iruzurraren likidazioa
- IX. titulua. Erreklamazioak eta jurisdikzioa
- 36. artikulua. Baldintza orokorrak
- Xedapen indargabetzailea
- Azken xedapena

Langara Ganboan edateko ur hornikuntza zerbitzua arautzen duen ordenantza

I. titulua. Xedapen orokorrak

1. artikulua. Lege oinarria eta xedea

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriei buruzkoak, 26.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, edateko uraren etxeetako hornikuntza derrigorrezko gutxieneko zerbitzua da, eta zerbitzu horren titulartasuna udalak du. Zerbitzu hori ordenantza honetan ezarritakoaren arabera arautuko da.

Ordenantza honen helburua da Langara Ganboa udalerrian administrazioaren organo bezezirik gabeko kudeaketa zuzeneko modalitatean udalak arriskua bere gain hartuz emango duen edateko uraren hornikuntza zerbitzua arautzea. Udalak kalitateko zerbitzua, kopuru nahikoa, etengabe eta arrazoizko kostuan emateko ahalegina egingo du.

2. artikulua. Eskumenak

Udalak beharrezkotzat jotzen dituen eta erabiltzaileei ahalik eta asaldura gutxien eragingo dieten antolaketarako eta zerbitzuak emateko neurriak hartu ahalko ditu, inguruabarrek hala eskatzen dutenean.

Alkateari edo honek eskuordetzen duen zinegotziari dagokio zerbitzuaren instalazio guztien zaintza eta ikuskatzea egitea; horretarako, neurketa eta presio tresnen beharrezko egiaztapenak egin ahalko ditu eta aldi behingo analisiak egiteko laginak hartu ahalko ditu.

3. artikulua. Kontratuak edo harpidetza polizak

Hartzaileek zerbitzua erabiltzeko, kontratu edo "harpidetza poliza" egokia sinatu beharko da. Poliza horretan, kasu bakoitzerako baldintza orokorrak eta berariazkoak jasoko dira, eta zerbitzuaren erabiltzaileak dituen eskubide eta betebeharrak zehaztuko dira, ordenantza honetan ezarritakoaren arabera.

II. titulua. Edateko uraren hornikuntza

4. artikulua. Harpidedunak

Etxeetako hornikuntzaren udal zerbitzuaren harpidedun izan ahalko dira:

a) Eraikin, etxebizitza, lokal edo abeltzaintzako instalazioen jabeak, baldin eta titulartasuna zuzenbideak onartutako frogabideren batez egiaztatzen badute.

b) Aurreko atalean aipatutako higiezin gainean eskubide errealak dituzten titularrak eta errentamendu modu bereziaren titularrak, baldin eta eskubidea eta jabearen baimena edo adostasuna egiaztatzen badute.

c) Jabeen erkidegoak, baldin eta horien batzorde nagusiek hala erabakitzen badute eta hornikuntza anizkune modalitatea aukeratzen badute.

d) Higiezin edo etxebizitzak erabiltzeko eta lupertzeko eskubideen beste edozein titular, baldin eta zerbitzua erabiltzeko beharra eta titulartasuna udalaren aurrean egiaztatzen badu.

5. artikulua. Aurretiko baimenak eta lizentziak

Eraikin eta lokalen gainean edo, hala badagokio, aurreko artikuluan aipatutako instalazioen gainean eskubide errealak dituzten jabe edo titullarrek harpidedun izateko eskubidea izango dute, eraikin edo instalazio horiek udalaren edo horretarako eskumena duen beste edozein administrazioen lizentzia edo baimen egokiak dituztenean.

Hala ere, aurreko atalean xedatutakoa gorabehera, udal administrazioak behin-behineko baimena eman ahalko du ur hornikuntzarako udal zerbitzua erabiltzeko; baimena ezeztagarria izan ahalko da edozein unetan, eta erabiltzaileari ez zaio kalte ordainik ordainduko baimena ezeztatzeagatik.

6. artikulua. Uraren erabilerak

Edateko uraren hornikuntza honako hauetarako erabili ahalko da:

a) Etxeko kontsumorako, eraikinetarako edo ohiko edo aldi baterako bizileku diren etxebizitzetarako.

b) Merkataritza eta industria erabilerarako, izaera horretako jardueretarako.

c) Suteetako ur harguneetarako bide publikoan eta finka partikularretan.

d) Hiriaren erdialdeko lorategiak edo baratze txikiak ureztatzeko luxuzko erabilerarako; igerilekuetan erabiltzeko.

e) Abeltzaintzako erabilerarako; halakotzat hartzen da abeltzaintzako instalazioetan horiek garbitzeko edo horietan dagoen azienda elikatze erabiltzen dena.

f) Obretarako erabilerarako; halakotzat hartzen da behin-behinean eraikuntzarako edo higiezinak konpontzeko erabiltzen dena.

III. titulua. Sarerako konexioak

7. artikulua. Konexioa

Edateko uraren udal banaketa sarerako konexioa bakarra izango da hornitu beharreko eraikin edo higiezin bakoitzeko. Sarerako konexioak edo harguneak "ixteko giltza" izango du, bide publikoan eskuragarri dagoen erregistro batean, eta udal zerbitzuek edo zerbitzuaren kudeatzaileak baino ezingo dute erabili; erabat debekatuta egongo da harpidedunek horiei eragitea.

8. artikulua. Baimen prozedura

Hornikuntza baimentzeko prozedura hau izango da: interesdunak eskaera egingo du eta zein hornikuntza mota nahi duen adieraziko du. Eskaerarekin batera, lehenengoz okupatzeko lizentzia egiaztatzen duen dokumentua aurkeztuko da edo irekieraren aurretiko jakinarazpena eta ondasun higiezinaren gaineko zergan alta emanda egotearen egiaztagiria, edo katastroan alta emateko eskaera orria; halaber, erregistroaren kokapenari buruzko zehaztapena ere aurkeztuko da, ixteko giltza eta neurketa ekipoa edo kontagailua instalatzeko.

Baimena beti egingo da instalazioek hornikuntza arrunta egiteko baldintzak behar bezala betetzen dituztela jakinik.

9. artikulua. Instalazioen titulartasuna

Bai konexio instalazioak bai ixteko giltzak udalaren jabetzakoak izango dira. Konexio lane-tarako beharrezko lanak eta materialak udal zerbitzuek egingo dituzte, higiezinaren jabearen kargura, edo higiezinaren jabeak berak egingo ditu udalaren ikuskaritzapean, hala badagokio. Udalak, lanak egin aurretik, zenbatekoa udal diruzaintzan aurretik gordailutzeko exijitu ahalko du.

10. artikulua. Zerbitzuaren ezaugarriak

Edateko uraren etxeetako hornikuntza zerbitzua etengabea eta iraunkorra izango da, eta murriztu edo eten ahalko da, horretarako arrazoi frogagarriak daudenean, baina harpidedunek ez dute horregatik kalte ordainerako eskubiderik izango.

Zerbitzua eteteko edo murrizteko kasuetan, helburu nagusitzat hartuko da etxeetako kontsumoa ziurtatzea eta, beraz, gainerako erabilerak hornitzeko helburu hori bete beharko da aurretik.

Aldi baterako eteteko motibo izango da, besteak beste, matxuraren bat egotea eta biltegiak eta sareak zerbitzu emateko baldintza egokietan mantentzeko beharrezko lanak egitea; ahal den neurrian, erabiltzaileei edo ukitutako sektoreari ahalik eta lasterren iragarriko edo jakinaraziko zaie zerbitzua etengo dela.

11. artikulua. Barruko instalazioak

Uraren barneko banaketak eraikin eta etxebizitzetan aplikatzekoak diren arau teknikoak bete beharko ditu eta interesdunaren kontura izango dira instalazioaren eta mantentze lanen gastuak ordaintzea, ixteko giltzatik.

Zerbitzua erabiltzeko baimena dagoen kasuetan, interesdunak baimena ematen du udal zerbitzuek beharrezko ikuskatze eta egiaztapen teknikoak egiteko, nahiz eta eraikinak bizilekua-ren izaera juridikoa izan, beharrezko diren baimenekin.

12. artikulua. Aldaketak hornikuntzan

Erabiltzaileak zerbitzua baimentzeko ezarritako baldintzetan berrikuntzaren edo aldaketaren bat eginez gero, beste baimen bat beharko da, eta halakorik ezean, zerbitzua eten egingo da.

13. artikulua. Baimen transferiezinak

Baimenak norberarenak eta transferiezinak izango dira. Zerbitzua eskatzerakoan erakutsitako titulartasuna galdu edo eten bada, iraungi egingo da baimena.

14. artikulua. Beste erabilera batzuk

Pertsona harpidedunek ura baimena ematean kontuan hartutako erabileretarako baino ezingo dute erabili.

15. artikulua. Harguneen ezaugarriak

Finka bakoitzak hargune bakarra eta independentea izan beharko du. Zenbait etxebizitzek edo lokalek osatzen dituzten eraikinetan, hargunea bakarra izango da eraikin osorako eta bertako etxebizitza edo lokal bakoitzerako egingo da banaketa; hala ere, bakoitzak bere hargunearen eskubideak ordaindu beharko ditu.

Kasu horretan, instalazioek eta giltzek lokal bakarrean egon beharko dute, eta lokal hori udal zerbitzuentzako eskuragarri egon beharko du, kontagailu orokorrak instalatu ahal izateko.

IV. titulua. Neurgailuak

16. artikulua. Kontagailu mota

Edateko uraren kontsumoaren neurketa kontagailuen arabera egingo da, eta horiek aginte eskudunek homologatutako en artean udalak baimentzen dituen eredu tipokoak eta diámetrokoak izango dira.

17. artikulua. Kontagailuen instalazioa

Kontagailuak udalak edo harpidedunak udalaren ikuskaritzapean instalatuko ditu; horiek irakurketa, egiaztapena eta mantentze lana egiteko sarrera egokia duten lekuetan instalatuko dira, eta zigilatu egingo dira, zerbitzutik kanpoko inork manipula ez ditzan. Ez dira kontagailuak higiezinak edo etxebizitzetan barruan instalatuko, eta bertan daudenak egokitu egingo dira irakurketa modu egokian egin ahal izateko, harpidedunaren etxebizitzan sartu behar izan gabe, udalaren osoko bilkurak horretarako zehazten duen epean eta baldintzetan.

18. artikulua. Kontagailuen mantentze lana

Kontagailuaren mantentze lana, kontserbazioa eta ordezkatzeari harpidedunaren kontura eta kargura izango da beti.

19. artikulua. Harguneen aldaketak

Kontagailuaren leku aldaketak edo harpidedunak hala eskatuta harguneari eginko aldaketak haren kontura egingo dira, udalaren ikuskaritzapean.

V. titulua. Harpidedunen eskubideak eta betebeharrak

20. artikulua. Harpidedunen eskubideak

a) Poliza formalizatzen den egunetik, harpidedunak kontratatutako ura erabiltzeko eskubidea izango du, metro kubikotan zehaztuta, etxebizitzarako, lokalerako, ganadurako, baratzeetarako, etab.

b) Harpidedunak eskura izango ditu udaletxean bi hilerik behin bere kontsumoaren gainean egindako irakurketak.

c) Harpidedunak, arrazoitutako kasuetan, kontsumitzen duen uraren edangarritasunaren analisia egiteko eskatu ahal du, eta kalte eta galerarik egon bada, horiengatik ordain diezaioten eskubidea izango du.

21. artikulua. Harpidedunen betebeharrak

a) Eskuragarri dituzten zerbitzuaren instalazioak ondo mantentzea eta udalari jakinaraztea hornikuntza orokorrean edo beren titulartasunpeko etxebizitza edo eraikinaren hornikuntzan eragina izan dezaketen irregulartasunak.

b) Pertsona eta ondasunentzat arrisku larrikoak diren kasuetan, udal zerbitzuei, hala eskatzen badute, beraien etxebizitza edo eraikinetako ura erabiltzeko baimena emango diete; hori ez da eragozpen izango kalteak zuzentasunez ordain dakizkien.

c) Zerbitzua emateagatiko fakturak ordaintzea, indarrean dagoen ordenantzaren arabera. Horien barruan sartzen dira barneko instalazioen eraikuntzan edo mantentze lanetan jario, isuri edo hutsetan sortutako ur kontsumoak.

d) Udalari beraien jabetzan sartzeko erraztasuna ematea, hornikuntzari lotutako behar beste egiaztapen egiteko, eta neurgailuak eta beharrezko elementu osagarriak instalatzeko barrutien, lokalen edo kutxatilen erabilera lagatzeko, beharrezkoa izanez gero.

e) Ezingo diete, inolaz ere, ura doan edo ordainpean laga hirugarrenei, dela etengabe, dela aldi baterako; izan ere, hornikuntzan gertatzen den edozein iruzurren arduradun izango dira.

f) Ura kontratatutako moduan eta erabileretarako erabiltzea; instalazioetan kontratatutako emarietan hazkuntza dakarren edozein aldaketa egiteko udalari aurretik beharrezko baimena eskatzea. Neurgailuren bat aldatu behar denean, udalak aldaketa egin ahalgo du, eskabiderik bete behar izan gabe, eta harpideduna izango da sortzen diren gastuen arduradun.

g) Idatziz jakinaraziko dira zerbitzuan baja emateko eskabideak eta kontagailuaren irakurketan titulartasun aldaketak, aldaketaren unean bertan.

e) Hornikuntza publikoko sarearen ura jabetzan egon daitekeen beste edozeinekin ez nahastea.

VI. titulua Hornikuntza etetea, iraungitzea eta murriztea

22. artikulua. Eteteko kausak

Beste maila bateko erantzukizunak gorabehera, udal administrazioak, dagokion espedientea izapidetu ondoren, edateko uraren hornikuntza eten ahalgo du, honako kasu hauetan:

a) Ordenantza honetan ezarritako epeetan kontsumitutako uraren zenbatekoa ordaintzen ez bada, eta hori guztia ez da eragozpen izango kobratzeko premiamendu prozedurari edo auzibideari jarraitzeko, bi faktura ez ordaintzeagatik.

b) Kontsumoan iruzur egiteagatik edo iruzur berriro egiteagatik egindako likidazioen ondoriozko kopurua ordaintzen ez bada.

c) Kontratatukoaren bestelako erabilera ematen bazaio urari, eta ohartarazpena egin ondoren.

d) Instalazioetan hirugarrenak hornitzeko adarkatzeak ezartzen badira.

e) Behar bezala dokumentatuta dauden udal langileei etxebizitzan, lokalean, eraikinean, eta abar egunez eta polizaren titularra edo familiartekoren bat aurrean dagoela instalazioak berrikusten sartzeko baimena ematen ez bazaie, egiaztapen bisita egingo dela jakinarazi ondoren.

f) Ordenantza honetan aipatutako beste edozein arau hausten bada eta arau hauste horrek pertsonen segurtasunerako, osasun egoerarako eta higienerako arriskua ekar badezake.

g) Zerbitzua kontagailurik gabe edo kontagailu erabilgarririk gabe erabiltzen bada.

h) Iruzur egiten bada; iruzurtzat hartzen dira kontsumoaren ohiko neurketa eragozten duten ekintzak, neurgailuen zigiluen aldaketa eta horien suntsipena, udal zerbitzuari berehala jakinarazi gabe.

i) Instalazioa ordenantza honen lehenengo xedapen gehigarriaren arabera ez egokitzea.

23. artikulua. Eteteko prozedura

Hornikuntza moztean, aurretik udal ebazpenaren berri emango zaio interesdunari, eta udal sarearen eta kontagailuaren edo kontagailuen artean dagoen ixteko giltza itxi edo buxatuko da.

Harpidedunak, hornikuntza moztu aurretik, nolana ere, dela kontsumoagatik, dela aurreko atalean aipatutako kasuen ondoriozko kalte ordainengatik likidatu zaion kopurua gehi krokaduraren edo loturaren kuota berria ordaindu ahalko du.

24. artikulua. Hornikuntza kontratua iraungitzea

Hornikuntza kontratua honako edozein kausarengatik iraungiko da:

– Harpidedunak hala eskatzen badu.

– Udalak hala ebazten badu, honako kasu hauetan:

a) Ordenantza honen 24. artikuluan araututako etete kausen batek hiru hilabete baino gehiago irauten badu.

b) Hornikuntza kontratuaren epeak eta baldintzak betetzen badira.

c) Zerbitzua kontratatzeke helburu zen zerbitzu eta instalazioen erabilera aldatzen bada, eta hornikuntzaren kontratuaren helburu den finka eraitsi, handitu edo zaharberritu bada.

Aurretik aipatutako kausaren batengatik kontratua iraungi ondoren hornikuntzarekin berriz hasi nahi bada, beste eskabide bat aurkeztu beharko da, beste kontratu bat sinatu beharko da eta dagozkion eskubideak ordaindu beharko dira.

25. artikulua. Hornikuntza eteteko eta iraungitzeko eskumena

Hornikuntza mozteko eta iraungitzeko ebazpena alkateari dagokio, eman ditzakeen eskumenei eragotzi gabe.

26. artikulua. Aldi baterako etetea

Udalak etengabe mantenduko du edateko uraren hornikuntza zerbitzua, ezinbesteko kausaren bategatik edo instalazio publikoetan dagoen matxuraren bategatik ez bada. Hala ere, aldi baterako eten ahalko da zerbitzua, baldin eta instalazio publikoak mantentzeko, konpontzeko edo hobetzeko beharrezkoa bada.

Aurreikusitako eta programatutako mozketetan, udalak hogeita lau ordu lehenago eman beharko du mozketaren berri, gutxienez, eta horretarako iragarkia argitaratu beharko du udalerriko iragarki taulan eta ukitutako etxebizitzetara oharra bidali beharko du.

Udal instalazioetan dauden matxurengatik hornikuntza etetean, sei egunetik gora eta ezinbesteko kasua izan gabe, harpidedunak zerbitzuaren kuotaren zati proportzionala itzultzeko erreklamazioa aurkezteko eskubidea izango du.

27. artikulua. Murrizketak hornikuntzan

Udalak edateko uraren hornikuntzan murrizketak ezarri ahalko ditu, baldin eta, lehorte kausak, ur emari eskasak edo tratamendurako zailtasunak direla eta, komenigarritzat jotzen badu.

Udalak ezarriko diren neurrien berri emango die harpidedunei, eta horiek noiz ezartzen hasiko diren jakinaraziko die.

Hornikuntza eteteko kausa erabiltzaileen beharrak asetzeko emari nahikoa ez dagoela bada, zerbitzuak eten egingo dira, eta lehentasun ordena honen arabera emango zaie erabilerei zerbitzu:

1. Obretarako erabilerak
2. Nekazaritzako erabilerak eta lorategiak, igerilekuak eta antzekoak.
3. Merkataritza eta industria erabilerak
4. Abeltzaintzako erabilerak
5. Etxeko erabilerak

VII. titulua. Tarifak

28. artikulua. Tarifen zenbatekoa

Edateko uraren etxeetako hornikuntza zerbitzuaren tarifak etxeetarako edateko ura banatzeko zerbitzua emateagatik tasa arautzen duen zerga ordenantzan zehaztutakoak izango dira.

Tarifen eta horien aldaketen indarraldia onarpenezko akordio osoak eta ordenantzaren testu osoa ALHAOn argitaratzen den egunetik aurrera hasiko da.

29. artikulua. Irakurketak

Kontagailuak bi hilerik behin irakurriko dira eta udal langileek egingo dute irakurketa; irakurketen liburuan bi hilerik behin kontsumitutako metro kubikoak jasoko dira.

Harpidedunak egiten dituen kontsumoen zehaztapena fakturazioaren elkarren ondoko bi aldiren irakurketen arteko diferentziaren bidez egingo da.

Kontagailua irakurtzerik ez badago, dagokion bihilekoan tarifen ezarritako kontsumoaren gutxienekoa edo aurreko urtean sasoi berean kontsumitutako kopurua fakturatuko da, zenbateko osoa handiagoa balitz. Gerora irakurketa egin eta gutxieneko gisa fakturatutako metro kubikoak kenduko dira.

30. artikulua. Ordainagiriak

Udalak harpidedunei jakinaraziko die zer epe duten agiriak ordaintzeko. Jakinarazpena kobratzeko, bana-banako oharraren bidez edo ALHAOn argitaratutako iragarkiaren publizitate orokorraren bidez egingo da. Jakinarazpen hori ez da beharrezkoa izango helbideratutako ordainagirien kasuan.

Borondatezko epeetan ordaindu ez diren fakturak edo ordainagiriak premiamendu bidean kobratuko dira, tokiko araubideari buruzko legeriak ezartzen duenaren arabera.

Errentan edo beste luperketaren batean lagatako higiezin jabeak ordaindu ez diren ordainagirien arduradun izango dira subsidiarioki.

31. artikulua. Agiriak ordaintzeko modua

Harpidedunek banku helbideratzearen bidez ordaindu beharko dituzte fakturatutako zenbatekoak, tasa arautzeko zerga ordenantzan beste aukerarik ezarri ezean.

32. artikulua. Hutsen zuzenketa fakturazioan

Udalak hutsa egin eta behar baino gutxiago kobratu duen fakturen kasuan, diferentziaren ordainketa mailakatu egingo da epe batean, kontrakoa erabaki ezean, eta epe hori fakturazio akastunek iraun duten epe bera izango da, gehienez bi urte.

VIII. titulua Iruzurak hornikuntzan

33. artikulua. Ikuskatzea

Udalak beharrezkotzat jotzen dituen ikuskatzeak egin ahalko ditu, baldin eta zerbitzuan irregularitasunen bat dagoela uste badu; ikuskatzea egitera udaleko langileak edo kontratatutako enpresa joango da, eta harpidedunari jakinaraziko dio ikuskatzea zein egunetan eta ordutan egingo den.

Irregularitasuna egiaztatuz gero, zigilatu egingo dira, ahal dela, iruzurrari atxikitako elementuak, eta akta jasoko da. Aktan zera jasoko da: instalazioa, bisita eguna eta ordua, ikusitako irregularitasunaren deskribapen zehatza eta froga elementuak, halakorik badago, eta harpidedunei, mendekoei edo familiartekoei edo ikuskatzean dagoen beste lekukoren bati akta sinatzeko eskatuko zaio, eta harpidedunak egokitzat jotzen dituen adierazpenak idatzi ahalko ditu eta horiek bere sinaduraren bidez egiaztatu. Halakorik egin nahi ez izateak ez du izapidetzean eta gero ezartzen diren ondorioetan eraginik izango, eta ez dira kontuan hartuko sinadurarik gabeko adierazpenak.

Irregularitasunik dagoen ala ez egiaztatzerako joatean, harpidedunak sartzeko baimena ezeztatuz gero, hornikuntza eten ahalko da.

34. artikulua. Jarduketa irregularitasun kasuan

Udalak, idatzitako akta kontuan hartuta, instalazioaren jabeari eskatuko dio bertan antzemandako hutsak zuzentzeko, eta ohartaraziko dio, bost egun baliioduneko epean hala egin ezean, dagokion hornikuntza eteteko prozedura aplikatuko dela.

Sareetan kontraturik gabe hornikuntza erabiltzeko adarkatzeak aurkitzen badira –alegia, modu klandestinoan egindakoak–, hornikuntza berehala moztu ahalko da adarkatzeetan, eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren Lurralde Ordezkaritzari jakinaraziko zaio idatziz.

35. artikulua. Iruzuraren likidazioa

Udalak, akta duenean, iruzurraren likidazioa egingo du, honako kasu hauek kontuan hartuta:

1. Edateko ura hornitzeko kontraturik ez egotea
2. Kontagailuko erregistroa manipulatu edo aldatu izana
3. Emariaren adarkatzeak egin izana, etengabe edo aldi baterako, neurketa ekipoen aurretik.
4. Ura kontagailuena bestelako erabileretarako erabiltzea, eta horrek aplikatu beharreko tarifaren arabera kontsumoen fakturazioei eragitea.

Udalak honela egingo du dagokion likidazioa, kasuen arabera:

1. Lehenengo kasuan. Iruzurragatiko likidazioa egingo da; iruzurrezko ekintzarako erabilitako instalazioei araz dagokien kontagailuaren gaitasun nominalaren baliokide den kontsumoa jasoko du likidazioak, egunean etengabeko hiru orduko erabilerarekin eta aipatutako instalazioen titulartasuna edo erabilera eskubideak eskuratzen direnetik antzemandako iruzurra ordaintzen den unera arteko epean, kontuan hartuta guztira ezin izango dela urtebete baino gehiago luzatu.

2. Bigarren kasuan. Iruzuraren zenbatekoa likidatzeko oinarri gisa nominala neurtzeko gaitasuna hartuko da, eta kontuan hartu beharreko denbora kontagailuaren azken egiaztapen ofiziala egiten den egunetik egunean hiru ordukoa izango da, kontuan hartuta denbora hori ezin izango dela urtebete baino gehiago luzatu, eta denbora tarte horretan iruzurraren egileak ordaindu dituen kontsumoak kenduta.

3. Hirugarren kasuan. Lehenengo kasuan bezala likidatuko da eta ez da kenduko kontagailuak neurtutako ura.

4. Laugarren kasuan. Urari ematen ari zaion erabilera errealarari aldi bakoitzean dagokion tarifaren eta aldi horretan kontratatutako erabilera oinarri hartuta aplikatutakoaren arteko diferentzia aplikatuko zaio kontsumoari. Aldi hori ezin izango da zenbatu urtebete baino gehiago.

Kontagailuaren emari nominalizat hartuko dira, kontrako frogarik ezean, taula honetan jasotakoak, kontagailuaren diametroaren arabera:

KALIBREA / MM	EMARI NOMINALA (M ³ /H)
32	7

Kasu guztietan, aurreko lau kasuen arabera kendutako iruzurraren zenbatekoa aplikagarri dituen zergei lotuta egongo da, eta horien zenbatekoak dagozkien likidazioetan ordaindu behar dira.

IX. titulua. Erreklamazioak eta jurisdikzioa

36. artikulua. Baldintza orokorrak

Erreklamazioak, zalantzak eta zerbitzuak eskaintzearen ezaugarri buruzko interpelazioak herri administrazio eskumena duen organoak ebatziko ditu administrazio bidean. Horrez gain, toki administrazioaren alorrean indarrean dauden legeetan xedatutako prozeduraren arabera aurkatu ahal izango dira partzuergoaren erabaki eta jardunak.

Hala ere, justizia epaimahaiei dagokie beren jurisdikzioko kontu guztietan esku hartzea, alde interesatuak hala eskatuta.

Nolanahi ere, harpidedunaren eta udalaren artean planteatzen diren kontu eztabaidagarriak Gasteizko epaitegi eta epaimahaien jurisdikzioaren mende geratuko dira.

Xedapen indargabetzailea

Indargabetuta geratzen da, ordenantza hau indarrean jartzen denetik aurrera, gai hau arautzen duen maila bereko edo beheragoko edozein xedapen eta horren kontrakoa xedatzen duen edozein.

Azken xedapena

Ordenantza hau 2014ko urriaren 20ko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak behin betiko, ALHAOn argitaratuko da oso-osorik eta 7/1985 Legearen, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenaren, 65.2 artikuluan ezarritako epea igaro ondoren, sartuko da indarrean.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da, eta jakinarazten da haren kontra administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango dela zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, iragarki hau argitaratzen denetik bi hilabete igaro baino lehen.

Dura, 2014ko abenduaren 23a

Alkatea

RUFINO SÁEZ DE IBARRA RUIZ DE ARBULO